

1. LITERATURA BIBLIKOAREN, GREZIARRAREN ETA LATINDARRAREN AURKEZPEN LABURRA. TRAGEDIA GREKOA.

1. Literatura biblikoa

Biblia kristautasunaren eta judaismoaren idazki sakratu eta nagusiak biltzen dituen liburua da. Erligio hauen esanetan, Biblian Jainkoaren hitza jakinarazten zaigu.

Bi atal nagusik, Itun Zaharrak eta Itun Berriak, osatzen dute. Itun Zaharra Jesukristo jaio aurreko Israelen historia kontatzen duten liburuek osatzen dute (juduek atal hau soilik onartzen dute sakratutzat). Itun Berriak Jesukristoren jaiotza, irakatsiak, heriotza, biztuera eta Elizaren sorrera kontatzen dizkigu.

Historian zehar, beste edozein liburu baino aldi gehiagotan eta hizkuntza gehiagotara (2.000 baino gehiagotara) itzuli dute. Esaten dutenez, 1815etik 5 biloi kopia baino gehiago merkaturatu dituzte, inoizko libururik salduena izanda.

1.1. Historia

Biblia 1.000 urtetan zehar (K.a. 900-K.o. 100) idatzitako liburu bilduma da. Itun Zaharra hebreeraz idatzitako 46 liburuk osatzen dute, lau sail handitan banatuta: Pentateukoa, liburu historikoak, profeten idazkiak eta olerki eta jakituriatzko liburuak.

Itun Berriak 27 liburu ditu, hauek ere lau sailetan banatuta: Ebanjelioak (Jesus Nazaretokoaren bizitza eta irakatsiak, Mateo, Markos, Lukas eta Joanez azalduak), Apostoluen Eginak (Elizaren hasiera kontatzen da bertan), Pauloren eta apostoluen gutunak eta, azkenik, Apokalipsia. Liburu hauetatik gehienak jatorriz grekoz idatzi ziren, K.o. 50-100 urte bitartean.

Vulgata latin arrunteko itzulpena da, San Jeronimok egina V. mende hasieran Damaso I.a aita santuak 382an eskatu ondoren. Bertsioak, bere izena, "vulgata editio" esalditik hartzen du (herriarentzako edizioa) eta latin arruntean idatzi zen, Zizeronen latin klasikoaren oposizioz. Vulgataren xedea bere aurrekoak baino zehatzagoa eta ulerterrazagoa izatea zen.

1.2. Bibliako liburuak

1.2.1. Itun Zaharra

- Pentateukoa
- Liburu historikoak
- Profeten idazkiak
- Olerki eta Jakituriatzko liburuak



1.2.2 Itun Berria

- Ebanjelioak:
 - Mateo
 - Markos
 - Lukas
 - Joan
- Apostoluen Eginak
- Pauloren eta apostoluen gutunak
- Apokalipsia



1.3. Euskarazko bertsio batzuk

- 1571 - Joannes Leizarragak *Iesus Christ gure iaunaren Testamentu Berria* argitaratu zuen, Bibliaren (Testamentu Berriaren) lehendabiziko bertsioa edo itzulpena euskaraz.
- 1865 - Jean Pierres Duvoisin-ek argitaratu zuen *Biblia osoaren itzulpena* (lapurteraz), Bonaparte printzeak eskatuta.
- 1958 - Raimundo Olabide-k bigarren itzulpen osoa kaleratu zuen: *Itun zar eta berria*, gipuzkeraz.
- 1976 - Jaime Kerexetak argitaratu zuen mendebaleko euskarazko bere bertsioa: *Euskal Biblia*, Bilboko Elizbarrutiko Gotzaintzaren eskutik.
- 1994 - *Elizen Arteko Biblia* argitara eman zuten, katolikoak eta protestanteak batuta, eta euskara batuaz idatzita.

2. Greziako literatura

Zibilizazioak asko zor dio antzinako Greziari (filosofiari, zientziari, demokraziari...), eta haien artetik, literaturak berebiziko garrantzia du. Izan ere, mendebaldeko literaturaren tradizioan izango ziren genero, forma eta topiko gehienak Greziako penintsulan sortu ziren, K.a. VIII. eta IV. mende bitartean, eta haietako lehenak poesia epikoa eta lirikoa izan ziren.

2.1. Mitologiatik literaturarako igarotzea

Antzinako literaturaren muina jainko eta heroen inguruko elezahar eta kontakizun erlijiosoz osatuta dago. Hasierako helburua fenomeno naturalak eta iraganeko gertaerak azaltzea zen. Gerora filosofiak eta historiak bere gain hartuko zuten eginkizun hori, baina mitoez bizirik iraungo zuten, beren edertasun literarioari eta argumentu erakargarriari esker. Izan ere, inspirazio-iturria izango ziren geroko literaturarentzat, Greziako garaietatik egun arte.

Aro Klasikoko izaki jainkotiar nagusiak		
Grekozko izena	Latinezko izena	Jarduera esparruak
Zeus	Jupiter	Jainkoen eta gizakien erregea
Hera	Junon	Zeusen emaztea
Poseidon	Neptuno	Itsasoetako jainkoa
Hefesto	Vulkano	Suaren jainkoa

Hades	Pluton	Infernuko eta hildakoen jainkoa
Febo edo Apolo	Apolo	Igarpenaren eta musikaren jainkoa
Atena	Minerva	Jakinduriaren jainkosa
Afrodita	Venus	Maitasunaren jainkosa
Artemisa	Diana	Ehiza eta basoetako jainkosa
Ares	Marte	Gerraren jainkoa
Hermes	Merkurio	Jainkoen mezularia
Dionisio	Bako	Ardoaren jainkoa

2.2. Poesia epikoa

Greziako nobleek gogoko zuten arbasoen guduak eta ekintza miragarriak entzutea, eta beren burua ikusten zuten haietan islaturik. *Aedo* edo *rapsodo* deitutako poeta ibiltariek horrelako gertaerak konposatzen eta ahoz zabaltzen zituzten, beren poema epikoen bitartez (grekozko *epo*-tik, «kontakizuna»).

Poema haietako gai nagusiak lotuta zeuden Troiako gerraren gaineko elezaharrekin: greziarrek setiatuta zuten hiria, Parisek, troiatarren printzeak, Helena Menelaoren iloba bahitua baitzuen. Urte askotako gerratearen ondoren, greziarrek beren atzera-egitearen plantak egin zituzten eta hiria konkistatu zuten, zurezko zaldi baten barruan sartuta.

Heroiek etxera itzultzeko pasatu beharreko zailtasunak ohiko beste gai bat izaten zen. Oro har, hauexek dira epikaren baliabideak:

- Literatur formulen eta adjektiboen errepikapena.
- Konparazioen erabilera etengabea.
- Deskripzio zehatz-zehatzak.



Poema homeriko handiak

Greziar poema epiko gehienak galdua daude. Hala ere, Homeroren bi obra luze kontserbatzen dira (K. a. VIII. m.):

- *Iliada*: Troiako (*Ilion*, grezieraz) gerrako gertaera bat kontatzen du. Agamenon buruzagiarekin liskartu ondoren, Akilesek, Greziako heroi nagusiak, borroka utzi du; ondorioz, troiatarrek nagusituz doaz. Baina Patroklo bere laguna hiltzen denean, Akiles itzultzen da eta etsaien buruzagi Hektor hil egiten du. Jainkoek parte hartzen dute argumentuan, batzuen nahiz besteen alde agertuz.
- *Odisea*: Ulisesek (*Odiseo*, grezieraz) bere herrialderaino egiten duen itzulera bidaia kontatzen du, Troiatik Itakaraino, alegia. Gizon azkarra zela eta, izaki miragarrien arteko (sirenak, ziklopeak...) abentura asko gainditzea lortzen du. Etxera itzultzean noble talde batekin borrokatuko da, bere emaztearekin ezkondu eta erresuma lapurtu nahi baitzioten.

2.3. Poesia lirikoak

Poesia epikoak iraganeko gertaera gogoangarriak kontaktzen dituen moduan, poesia lirikoak orainaldiko sentimenduetan eta arduetan erreparatzen du. Poemak lira edo txirula baten doinuaz lagundurik kantatzen ziren, eta hortik *lirika* izena. Grezian, K.a. VII.-V. mende bitartean iritsi zen gorenera.

2.4. Prosaren sorrera

Antzinateko literatur genero nagusiak (epika, lirika eta drama) ahapaldietan idazten ziren, hirurak kantuari eta errezitazioari lotuta baitzeuden. Prosa beste genero batzuekin sortzen da, estetika hutsaz gain, bestelako helburuak dituztelarik:

- **Filosofia:** hasierako filosofoek hitz neurtuetan idatzi bazuten ere, Greziako pentsalari handienak prosaz baliatu ziren, Sokrates izan ezik, ez baitzuen ezer idatzi. **Platon-ek** (K.a. 428-347) arreta handiz zaintzen zituen bere solasaldi filosofikoen formak eta maiz mitoez baliatzen zen azalpenak egiteko. **Aristoteles-ek** (K.a. 384-322) idatzitako literatur tratatuak, *Poetika*-k, eragin handia izango zuen.
- **Alegiak** irakaspen morala duten kontakizun laburrak dira, eta animaliak dituzte protagonista: **Esopo** (K. aurreko V. m.).
- **Zientzi tratatuak: Hipokrates** mediku ospetsua (K. a. V. m.).
- **Oratoria**, politikaz eta legeez hitz egiteko artea, demokrazian garrantzi handikoa: **Lisias** (K. a. V. m.), **Demostenes** (K. a. IV. m.).
- **Historia: Herodotok** (K. a. 484-424) gertaera ugariren berri eman zuen *Historiak* bere obran

2.5. Antzerkiaren sorrera

Greziako antzerkiaren sorrera Dionisos-en omenez nekazariak kantatzen zituzten himno koral erlijiosoetan dago. Dionisos edo Baco ardoaren eta lurraren emankortasunaren jainkoa zen. Hortaz, erritual erlijioso batean izan zuen sorburu antzerkiak. Ondoren, koruarekin mintzatuko zen pertsonaia bat sortu zuten: hora lehenengo aktorea eta, horrekin batera, antzerkia. Handik gutxira, Greziako literaturaren gailurretako bat izatera iritsiko zen genero dramatikoak. Bi genero dira nagusi: tragedia eta komedia.

TRAGEDIA

Mitologiatik hartutako pertsonaia gorenen bidez (jainkoak, erregeak, heroiak...) adierazten dira tragediaren giza pasioak. Amaiera zorigaiztokoa da beti, alegia, tragikoa. Patuaren biktima bilakatzen da heroi mitiko hori, eta halakoak dira ikuslearengan sortutako pena eta errukia, non emozionalki askatua eta garbitua sentiarazten duen: *katarsia* deritzo ondorio edo egoera horri, heroiaren ezbeharrarekin barru-barruraino, errailetaraino identifikatu ondorengo lasaituari, haren zorigaztoko gertaera tragikoetatik nor bere burua aske ikusteari.

Tonuaren eta estiloaren aldetik, tragedia jasoa eta solemnea da. Hiru dira Greziako tragediaren maisuak: **Eskilo, Sofokles eta Euripides**. Hiruren lanak batera jarrita ehunka zenbatuko lirerateke, gehienak galdu egin ez balira; hogeita hamabi baino ez zaizkigu iritsi.

Lehenengo lanetatik ondorengoetara progresio nabarmena gertatzen da antzerkiaren forman. Hasierako koruaren protagonismoa ahultzen joango da, eta aktoreen protagonismoa indartzen. Eskiloren bi aktoreetatik hirura pasatuko gara Sofoklesekin. Koruaren berezko narratibitatea murrizten joango da, eta antzerki izaera areagotzen. Pertsonaiei dagokienez ere, eboluzio bat gertatzen da: hasiera batean pertsonaiek zuten karga erlijioso baretu ahala, beren jitea ere humanizatu egiten da. Sofoklesen *Antigona*-ren sentimenduak gertuagokoak sentituko ditu ikusleak Eskiloren protagonistenak baino. Euripidesekin areagotu egingo da joera hori.

Eskilo (K.a. 525-455) lehena izan zen hiru tragedia-idazleen artean. Koruaren garrantzia gutxitu eta bi pertsonaia gehiago erantsi zituen, solasaren mesedetan. Ez zuen argumentu korapilatsurik erabiltzen, eta bere obrak trilogietan bilduta daude. *Prometeo kateatua* eta *Orestiada* trilogia dira aipagarrienak.

Tragediak, baliabide formalei bagagozkie, bultzada handia jaso zuen Eskilori esker. Esan daiteke berak finkatu zituela tragediaren funtsezko arauak. Handik aurrera, baliabide gisa finkatu ziren solasak, kontrasteak eta efektu teatralak. Sakontasun erlijioso eta moraletan elikatzen dira haren lanak, batez ere patuaren guztizko garaipenean, heroi eta erregeak bere mendera errenditzen dituen indar misteriotsu eta sakratuan. Giza kondizio arruntetik urrun daude haren heroi tragikoak.

Sofokles (K.a. 496-406). Perfekziora eraman zuen tragedia genero gisa. Eskiloren lehiakide izan zen gaztetan, eta gaingitu ere egin zuen maisua. Hauek dira haren berrikuntza formalak: hirugarren aktorea gehitu zuen, horrela ekintza aregotuz, eta aldi berean koruaren protagonismoa murriztu zuen; bakarrizketa erabili zuen, pertsonaien pentsamendua sakontzeko baliabide gisa. Sofoklesen estiloa Eskilorena baino soilagoa, argiagoa da. Haren pertsonaiak, idealizatuta badaude ere, gizatiarrago agertzen zaizkigu, Eskiloren erdi jainkoen aldean. Hona bere obra nagusiak:

- *Edipo errege*: egitura dramatiko paregabea du. Tebas Esfingearen atzaparretatik salbatzearen, errege egingo dute Edipo, baina izurritearen zergatiaz kezkatuta dabil, jakin gabe bera dela haren eragile, parrizidioaren eta intzestuaren orbaina baitarama gainean. Egia izugarriaz ohartzen denean, jauregira egingo du ahal duen lasterren; han, ama (Jokasta) urkatuta aurkituko du. Etsipenak jota, begiak zaurituz itsutu egingo da. Modu bikainean erakusten du *Edipo Errege*-k gizakiaren ahaleginaren eta patu itsuaren arteko kontraste larria. Baina ahalegin eta borondate hautsezin horrek berak bihurtu du, nahiz eta erori eta galdu, heroia bihotz-bikain. Horri zor zaio Ediporen tragedia ikuslearengan sortu ohi duen erruki erdiragarria.
- *Antigona*: Justiziaren bi ikuspegi guztiz kontrajarri taularatzen dira Antigona eta Kreonte pertsonaien bitartez: hiriko legeei zor zaien errespetua eta hildakoei zor zaiena.
- *Ajax*: Troiako gerran Akilesekin batera borroka egin zuen erregearen historian oinarritutako tragedia.

Euripides-ek (K.a. 480-406) irauli egin zuen tragedia, baina haren lanak ez ziren gustuko izan garaikideen artean: errealistegiak eta ezkorregiak omen ziren. Haren eskutik, ordea, haragizko gizakia taularatzen da, nahiz eta ez eduki hark Eskiloren solemnitatearik ez Sofoklesen duintasun noblerik. Euripides antzerki tekniken esperimintatzaile trebea izan zen. Ez du jainkoen mundua errespetuz begiratuko; alderantziz, humanoen bertute eta miseria berak sumatzen dizkie. Emakumeek berebiziko garrantzia dute Euripidesen antzerkian, pasio irrazional eta larrienen menpe agertuz, eta eromeneraino nahasten dira. Harenak dira literatura unibertsaleko emakume tragikoen izen handi hauek: Medea, Fedra, Ifigenia. Euripidesen lanek eragin handia izan zuten Europako literaturan.

Hona haren lan batzuen izenak:

- *Alcestis*
- *Medea*
- *Ifigenia*
- *Hecuba*
- *Elektra*
- *Helena*
- *Bacanteak*



KOMEDIA: Aristofanes

Ekintza bizi eta arinekoa, komedia sarritan baliatzen da txiste, sesio eta txantxaz bere asmo satirikoa eta egoera barregarriak nabarmentzeko. Atenaseko kaleetan eta bertako biztanleen egunerokoan giroturik, gizakien ajeak eta giza akatsak ditu hizpide.

Egilerik entzutetsuena **Aristofanes** izan zen (K.a. 445-387); bere lanetako batean, *Lisistrata*-n, Greziako emakumeek, gerraz gogaiturik, senarrak abandonatzen dituzte, bakea sinatzera behartzeko.

3. Latinezko literatura

Italiako erdigunetik abiatuta, erromatarrek Antzinaroko inperiorik sendoena eratu zuten Mediterranioren inguruetan. Hala ere, Greziak —orduan Erromaren mende— konkistatzaile indartsuak konkistatu zituen bere kulturarekin. Izan ere, grekolatindar kulturaz ezagutzen den zibilizazioen bat-egiteak literatura latindarraren obra nagusiak sortu zituen.

3.1. Antzerkia

Erroman lehen garatutako generoa antzerkia izan zen. "Komedia latindarra" k greziar giroa uztartu zuen latindarren izaerarekin eta latinezko herri hizkerarekin.

Protagonistak hiriko klase ertainetakoak ziren. Gai eta pertsonaia nagusiak ere beti berberak izaten ziren:

- Bikote gazte baten maitasun minak eta penak, esklabo buruargi batek lagunduta.
- Merkatari, agure gordin edo soldadu harroputzak, beti ziria sartuta bukatzen dutenak.
- Ume galduak, hainbat urteren buruan berriro aurkituak.

Erromako komediagilerik ospetsuena eta oparoena **Plauto** izan zen (K.a. 254-184). Bere asmo nagusia barre eragitea izanik, egoera lizun eta barregarriez baliatzen zen. Solasetan argi antzematen da herri latina.

Terentzio-ren (K.a. 184-159) komedietan argumentua ez da horren nahasia, eta pertsonaiak berak ere ez dira hain barregarriak, bai ordea psikologiaren aldetik landuagokoak. Darabilten latina, Plautorena baino dotoreagoa, eredutzat hartzen zen eskoletan.

Tragediak garrantzi apalagoa izan zuen. Ospea lortu zuen egile bakarra, **Seneka**, inperioaren garaikoa da (K.a. 4-K.o. 65), eta bere lanetan nabaria da Euripidesen kutsua.

3.2. Prosa: Oratoria eta Historiografia

Errepublikaren garaian, **oratoria** nahitaezkoa zen politika jomuga zuten gazteen hezkuntzan. Ulertzekoa denez, Inperioa etorri zenean garrantzia galdu zuen.

Zizeron izan zen latinezko hizlaririk trebeena (K.a. 106-54). Kotsulatura iritsi zen, eta tratatu filosofikoak idatzi zituen, *Zahartzoari buruzkoak* bezalakoak. *Katalinariak* eta *Filipikak* tiraniaren kontrako hitzaldi ereduak ziren.

Historia beste genero nagusia da latinezko prosan. **Julio Zesar** jenerala eta politikaria izan zen lehenengo egileetako bat (K.a. 100-44), bere kanpaina militarrek idatziz bildu baitzituen hurrengo idazkietan: *Galiako gerraren gaineko komentarioak* eta *Gerra zibilaren gaineko komentarioak*. **Salustio** historialaria errepublikaren garaian jardun zen (K.a. 86-35).

Inperioaren garaian bi izen gailendu ziren:

- **Tito Livio** (K. a. 59-K. o. 35). Latindarren iragana, Augusto enperadorearen garaiera artekoa, goresteko asmoz, berealdiko kronika bat idatzi zuen: *Erroma fundatu zenetik*.
- **Tazito-k**, aldiz (K. o. 55-120), I. mendeko enperadoreen hilketen eta botere borroken berri eman zuen bere obretan.

3.3. Poesia latindar handia

Poesia latindarra, Greziar epika eta lirika oinarritzat izan zituen arren, idatzia eta maila jasoagokoa izango zen, Greziako poesia kantatuaren eta bere ahozko izaeraren aldean.

Augustoren erregealdian latinezko poesiak benetako urre-aldia izan zuen. Hauek izan ziren egile ospetsuenak:

- **Virgilio** (K. a. 70-19), Erromako poeta nazionala eta ondoko obren egilea:

- *Bukolikak*, landa aldeko bizimodua goraiatzaren duten artzain giroko poemak.

- *Georgikak* poema, nekazal tekniken berri ematen duena.

- *Eneida*, latinezko poema epiko gorena. *Eneida*-ren bi parteetan nabari da Homeroren eragina. *Odisea*-n bezala, lehenengo partean Jainkoek Eneas heroia Troia bere jaioterritik Italiaraino helarazten dute; bigarrenak ere *Iliada* hartzen du eredutzat, Italian finkatu arte troiarrek hango herrieekin izan zituzten borrokak kontaktzen baititu.



Virgilio poeta handia eta musa bi

- **Horazio**, segur aski latindar poetarik gailena (K. a. 65-8). Era askotako gaiak jorratu zituen *Odak eta Epistolak* bere obretan (satira, bizimodu xumearen gorespina, literatur kritika).

- **Ovidio** (K. a. 43-K. o. 17). Bere arteari buru-belarri emandako poeten eredia; *Maitatzearen artea* bezalako maitasun jarduerarako aholkuak idatzi zituen, baita elezahar mitologikoak ere bildu zituen *Metamorfosiak* lanean.

! Gaia LITERATURA GREZIAR ETA LATINDARRA

1. Azaldu mitologiak Greziako literaturan eduki zuen eragina. Aipa itzazu greziar mitologiako jainko-jainkosa batzuk eta bai kultura latindarrean horiek hartu zuten izena.

2. Zer da poesia epikoa? Nola sortu zen? Nortzuk zabaltzen zuten?

3. Homero: eman bere bi poema handien izenak eta argumentuak.

4. Prosa greziar klasikoa.

5. **Alegia** edo **fabula** generoaren sorrera. Beste alegilari edo fabulista modernoago batzuk.

6. Tragedia grekoa: zeintzuk dira beraren ezaugarriak? Zer da *katarsia*?

7. Eman hiru tragedia-idazle garrantzitsuenen izenak, euren ezaugarriak eta ekarpenak antzerkiari, eta bakoitzaren bizpahiru obra; sartu dena ondoko laukietan:

TRAGEDIA GREKOA		
IDAZLEAK	EZAUGARRIAK-EKARPENAK	OBRA BATZUK

- 8. Poesia latindarra: aipatu hiru poetarik handienak eta euren obra nagusiak.
- 9. Ovidioren *Metamorfosiak* lana: esan zertan datzan eta azaldu bertan agertzen diren pertsonaia mitiko ezagun batzuen jatorria.
- 10. *Odisea*: nor da protagonista? Azaldu laburki ziklopeen pasarteak; ba al du parekorik Euskal Herriko mitologian?
- 11. Zein da Euskal Herriko jainkosa nagusia? Non bizi da? Zer itxurarekin azaldu ohi da?

LITERATUR GURUTZEGRAMA 1

	1	2	3	4	5	6	7	8
1	■	□	■	□	□	□	□	■
2	□	□	□	□	□	■	□	□
3	□	□	□	□	□	□	■	■
4	■	□	■	□	■	□	□	□
5	□	■	□	□	□	□	□	□
6	□	□	□	■	□	□	□	■
7	□	□	□	□	■	□	■	□
8	□	□	□	■	□	□	□	■

GOITIK BEHERA

1. Osaba (kontsonanteak). Adanen semea.
2. Abelen hiltzailea. Erne.
3. Goian bego (laburdura). Greziarrentzat, gerraren jainkoa.
4. Hebrearren poema mota, gehienbat abestekoa. Kontsonantea.
5. Zuberoako mendia. Nota. Bokala.
6. Bokala. Grezia zaharreko kontalariak.
7. Kristoren aurrekoa. Gaztelaniazko aurrizkia, "berri" esanahiarekin (ald.). Hutsa.
8. Kontsonantea. Kontsonante txistukariak. Hamar.

EZKERRETIK ESKUMARA

1. Ergatiboaren marka. Unibertsoa eratu aurreko nahaste (ald.)
2. Edenetik kanporatzea eragin zuen fruta. Kanpo.
3. Jainkoaren hitza jasotzen duen liburu sakratua
4. Kontsonantea. Mila. Grekoentzat, egunsentiaren jainkosa
5. Lehena. Pinazeoen familiako zuhaitza (ald.)
6. Edantoki. Uholdetik babesteko ontzia eraiki zuena (ald.)
7. Paradisu. Bokal irekia. Azken bigarrena
8. Lore mota. Basoetako ninfa, oihartzunaren pertsonifikazioa



Kronologia Antxinako Literatura

Aixerrota BHI

Munduko Literatura

KRISTOREN AURRETIK

HISTORIA GIZARTEA KULTURA		LITERATURA
X. M. ARTE	<ul style="list-style-type: none"> •Egipziar zibilizazioaren garapena. •Zibilizazio mesopotamiarrak. •Zibilizazio hebreoa. •Zibilizazio mizenikoa. •Troiaiko Gerra (XII. mendea) 	<ul style="list-style-type: none"> •Literatur tradizioaren hasiera antxinako herri txinatar, indiar eta hebreoan. •Indiaren VEDA idazkiak mende luzeetan idati zituzten, K.A.ko VII.arte •Mahabharata eta Ramayana idatzi ziren XII eta I.mendeen bitartean. •Testamendu zaharra idatzi zen XII eta I mendearen bitartean.
IX. M.		HOMERO idazle graziarrak <u>Iliada</u> eta <u>Odisea</u> idatzi
IIIIV. M.	Lehen Olinpiada (776) Erromaren fundazioa (753)	
VI. M.	Pitagoras (filosofo eta matematiko greziarra. Parmenides eta Heraklito (filosofo greziarrak) Zaratustra (profeta persiarra)	SAFO eta ANAKREONTE (poeta greziarrak) ESOPHO (alegiagile greziarra) KONFUZIO (filosofo txinatarra)
V. M.	Herodoto eta Tuzidides (historialari greziarrak) Enpedokles, Anaxagoras eta Sokrates (filosofo greziarrak) Gerra Mediarrek Periklesen gobernu Peloponesoko gerra	
IV. M.	Platon, Aristoteles, Epikuro eta Zenon (filosofo greziarrak) Demostenes (hizlari eta politikari greziarra) Jenofonte (historialari greziarra) Alejandro Handiak persiar inperioa konkistatu	ARISTOFANES eta MENANDRO (komediagile greziarrak)
III. M.	Diogenes (filosofo greziarra)	
II. M.		PLAUTO eta TEREZIO (komediagileak)
I. M. (K.A.44)	Zizeron (Hizlaria) Julius Zesar (politiko eta historialaria) Zesarrek Galia konkistatu du (58-51)	LUKREZIO eta KATULO (poesia)
I. M. (K.A. 44- K.O. 18)	Tito Livio Oktavio Augusto enperadorea (K.A.ko 27- K.O.ko 14)	BIRGILIO, HORAZIO eta OBIDIO (poetak)
KRISTOREN ONDOREN		
I. M.	Seneka (filosofo eta idazlea) Kintiliano (oratoria)	
II.M.	Tazito (historialaria)	LONGO idazle greziarraren <u>Dafnis</u> eta <u>Kloe</u>